

URDAIBAI

2016
zenb. 07
.....

© MAGAZINE



BERMEOKO PORTUAK *etorkizuna amarrazten dau*

- BIZKAIKO AHALDUN NAGUSIARI ALKARRIZKETA
- SANTIMAMIÑE, 100 URTE
- ADELA GARTEIZ, ASPALDIKO DENDA
- TALOA, BASERRIKO ZAPORE *BOROBILA*
- LIZTOR ASIARRAREN MEHATXUA

RED natura SAREA 2000

Naturagune babestuak sare koordinaturik handiena. Pertsonak eta natura bat eginda.

La mayor red coordinada de espacios protegidos. Personas y naturaleza unidos.

10 M€

Euskadik Europako batez bestekoa baino % 30 gehiago inbertitzen du urtero.

Euskadi realiza una inversión anual de un 30% superior a la media europea.

60

Naturagune Babestu
Espacios Protegidos

%20,5

Euskadiko lurraldearen % 20,5 Natura Sarearen barruan dago (Europar Batasunaren batez bestekoa %18 da)

20,5% del territorio vasco es Red Natura (media comunitaria europea 18%)



EUSKO JAURLARITZA

REGULACIÓN DEL MEDIO AMBIENTE Y POLÍTICA AGROPECUARIA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y POLÍTICA TERRITORIAL

EZINBESTEKO ETORKIZUNA, DIBERTSIFIKATUTA ETA BARRITZAILEA

Nortasuna berreskuratu, tradizioa barriro asmatu, proiektuei ekin,... Busturialdeko ekonomiak bizitzen dauen eztabaida eta birmoldaketaren jarrerak dira. Lehen sektorearen lehiakortasunaren etengabeko galerak nekazaritza eta arrantzaren gainbehera markatu dabe. Portuek arrantza flotaren murrizketa edota desagerpena pairatu dabe. Honegaz batera tokiko enpleguaren gixtize edo desagerpena be emon da. Gernika-Lumoko zerbitzuak eta ostalaritza dinamizatu eban indar handiko industriak birmoldaketaren trena galdu eban eta merkataritza emonkorra ilundu eban. Errealitate kezkarri honek biztanleen biziraupenaren espiritua gogor jo dau eta ekintzailletza aktibatu dau. Hau ekonomia modelo barri bati zuzenduta dago, horretan erakundeetako estrategiak eta bultzadak bat egiten dabe.

Bermeoko portua garapenerako zeruertz barrietan berrasmatu da. Bere arrantza jarduera merkantzia garraioagaz eta kirol portuaren zerbitzuagaz batera bizi da. Azken hau, turismoa eta aisialdiagaz lotuta dago zuzenean, eskualdeko portu txikienezako horizonte barri bat zabalduz.

Busturialdeko kontaera historikoak, bere ondare kultural garrantzitsua lotzen dauena, turismorako goraka doan balioa da. Geure kultura bilatzen dabeen joera turistikoen aurrean geure historiak herria sendotu eta batzen gaitu. Honen hedapena planifikazio iraunkorra eskatzen dau, baliabideen egoera hoberenak sortzeko, hauen kontserbazioa eta balorizazioa lortuz.

Biosfera Erreserban inguruaren biodibertsitatea jarduera turistikoaren erdian dago eta etorkizunerako geure industria definituko dauen iraunkortasun esparruaren parte da.

Ezin da ukatu geure lurraldeak bisitarien itxaropenak eta desioak asetzeko gai diren erakargarritasunak eskeintzen dauzela. Bertan bizi garenon esku dago geure bizitza asetzeko jomuga bilakatzea.

HARPIDETZA

Aldizkaria jaso nahi badozu, gurekin harremanetan jarri hemen:
komertzial@nuevaeuropa.com / tel: 94 625 06 06
www.urdaibaimagazine.eus

URDAIBAI MAGAZINE NUEVA EUROPA S.M-REN
LANTALDEAK BURUTU DAU

Urdaibai Magazinek ez dauz bere gain hartzen
hirugarrenen emondako eritxiak edo egindako komentarioak.

ARGITARATZAILEA

NUEVA EUROPA S.M

Carlos Gangoiti, 15, behea
Gernika-Lumo (Bizkaia)

nuevaeuropa@nuevaeuropa.com
www.nuevaeuropa.eus

LEGE GORDAILUA: BI-153-2015

Aldizkari honek **Bizkaiko Foru Aldundiaren** laguntza jaso du.



AURKIBIDEA

ERREPORTAJEA

04 BERMEOKO PORTUA.
Dibertsifikazioa...
etorkizuna **AMARRATZEKO**

VISIT URDAIBAI

09 TURISMOA
bidea urratuz
doa Urdaibain

ELKARRIZKETA

10 UNAI REMENTERIA
Bizkaiko Ahaldun Nagusia

LEKUKO

14 GEURE HISTORIA eskuragarri
Santimamiñen 100 urtetan zehar,
ETORKIZUN IRAUNKORRA
AURRETIK

KALERIK KALE

16 ADELA GARTEIZ,
aspaldiko denda

SAL TSA-PORRU

18 TALOA,
baserriko zapore
borobila

BERDEAN

20 "LIZTOR ASIARRAK"
GEURE BIODIBERTSITATEA
MEHATXATU EGITEN DAU


BETI-JAI

22 URDAIBAI KOPA,
Geure paisaia
zirkuitorik onena

Bermeoko portua. Dibertsifikazioa...

CARISBROOKE

Bermeoko portua, arrantza jardueren paradigma izan da betidanik, zailtasunak gainditzeari eta arriskuari lotutako jarduera, hain zuzen be, baina asmamena, efizentziaz eta jakinduriaz josia. Bermeoko flotak izen sendo bat lortu dau mendeetan zehar. Arrantza teknikak, ontzien efizientzi maila altua eta bere profesionalen bikaintasuna dira aktibitate ekonomiko honen oinarriak. Hauek aberastasuna eta oparotasuna ekarri deutsee bai Bermeori eta baita eskualde guztiari be.



Bada hamarkada bat Bermeoko portuak arrantza-kuoten murrizketa globalaren erronkari aurre egin behar deusola, azken honek, aldi berean, gainerako beste arazo koiunturalak dakartzala, horien artean, tripulazioa erroldatzeko zailtasuna.

Harrapaketen jaitsierak izan arren, eta ondorioz, arrantzatik etorritako salmenten fakturazioen murrizketak egon arren, Bermeoko portuak aukera anitzak eskeintzen dauz, aukera hauek ezin dabe modu errazean ihes egin. Portua bera, etengabeko dibertsifikazio prozesuaren agertokia da, arrantza jardueren jaitsiera, merkataritza jarduera edota aisialdiko sektore nautikoaz orekatzen dauz, azken honek, jada portu zaharreko amarreen %100-a okupatzen dau.

Portu jardueren zifrak aztertuz, aktibitate ekonomikoaren sektore desberdinen arteko oreka gero eta handiagoa da.

2015-eko datuek, beherazko joera bat adierazten dabe arrantza-ontzien kopuruari dagokionez, guztira 30 2015.urtean (horietatik 18, 20 metrotik gorako luzeeraz). Kopuru honek, Bermeoko bajurako flotak 1969.urtean izandako datuek azalderatuta, orduan bajurako 247 ontzi zeuden, portuko errealtate egoera barriari buruzko ikuspuntu on bat eskaintzen deusku. 2015-ean, bajurako arrantza flotak 3.923.322 kilo arrain hustu eban Bermeoko kaietan, salmenta zifretan, guztira 5.666.171,00 €.



Jarduera komertzialari dagokionez, Bermeoko Portua, Eusko Jaurlaritzaren Garraio Azpiegituraren Zuzendaritza Orokorrak kudeatzen dauen bakarra da. 2015-ean, 105 itsasontzi sartu ziren Bermeoko Portuan, hauek 94.742,6 tona kargatu eta 170.570,6 tona hustu ebezan. Guztira, merkantzien 263.313,3 tona kudeatu ziren. Deskargatutako produktuak, siderurgikoak (%76,26), paper pasta (%11,19), aluminioa (%7,22) eta egurra (%5,33) izan ziren. Kargatutako produktuen artean, batez be egurra (%61,23), sodio sulfatoa, potasa eta sosa (%35,08) eta produktu siderurgikoak (%3,69) izan ziren. Itsasontzi hauen gehiengoak Europar Batasunetik etorritakoak ziren. Bazeuden ipar Afrika eta Europako ekialdeko herrialdeetatik etorritakoak be.

Bermeon, aisialdi nautikoko sektoreak, 370 amarre daukoz pantalanera eta 31 aldiuneko ilabeetan. 2015.urtean, 461 eskaera erregistratu ziren instalazio hauetan, erabilgarri zegoen kopurua baino 59 gehiago, hots, sektore honetako eskaria igoz doa.

Sektoreko krisi puntualen aurrean, Bermeoko Portuaren jarduera ekonomikoaren dibertsifikazio joerak, iraupena eta egonkortasuna bermatzen dau.





... etorkizuna Amarratzeko

Arrantza tradizionaleko gunea izateagaz batera Bermeoko Portua gune logistiko-komertzial eta aisialdiko espazio gisa egonkortzea, etorkizunerako apustua da. Hortxe sektore bakoitzak bere lehiakortasuna denboran zehar mantentzeko beharrezkoak diren jarduerak planifikatu eta garatzen dauz. Merkataritza sektoreari dagokionez, Portua, 115 metroko barku merkanteen sarbiderako egokituta zegoen eta linea batzuen trafikoez, itsasontzi handiagoen beharrezana adierazten eben.

2015.ean, Bermeoko Portuko praktikoaren eskutik, 125 metroko luzeerako itsasontzi batez prestaketa lanak eta maniobra simulazioak egin ziren. Emaizak onak izan ziren, Bermeoko Portuak, bela-luzera horretako itsasontziez jardun ahal izango dau. Hauxe inguruko gainontzeko portuek lehian ahal izateko hobekuntza garrantzitsua da.

Portuko merkatal arloko egoeren hobekuntzarako eragina duen beste eragile bat, fondeatzeko eremu bat izatea da bertan, behar izanezkerok, ontziek itxaronaldiak egin ahal izateko. Arrantza flotak jarduten dauen aldean ahalik eta eraginik gutxien izateko, proposamena Bermeoko kofradiagaz batera aztertu da. Helburu honez, dagokion espedientea martxan dago jada, eta urte honetan zehar, Portuak, ondo mugatutako fondeatzeko eremu bat izatea aurreikusten da.

Inbertsioei dagokienez, Frantxuako lonjen birgaikuntza eta Portu Zaharreko moia konponketa lanak dira azpimarragarriak.

Etorkizunera begira, aisialdirako nautika sektorean, 2017rarteko ildo estrategikoak ezartzen dabizen Plan Estrategikoaren ezarpenari eman jako jarraipena. Horrela, Bermeoko Portu Zaharreko darsena hobetu da, komun baten eta igarotze ontzientzako pantalan desmuntagarri bat ezarriz.

Portuko aktibitate ekonomikoaren optimizazioak, ezin dau alde batera utzi espazio honen natura, Bermeoko eguneroko bizimoduaren, aisialdiaren eta herriko paisaiaren parte bezala. Iraunkortasuna eta ingurugiroaren kalitatea garapenerako ezinbestekoak dira eta plangintza zein praktika ezberdinetan lantzen dira. Horrela, 2015.ean, Bermeoko Portuaren itsasoko Barne-plana burutu da (Itsas Kutsaduraren aurkako Erantzun Sistemaren barne). Euskadi Kirol Portuak, Bermeoko Kirol darsena kudeatzen dauen sozietate publikoak, bere kalitatezko kudeaketa sistema osatu dau, praktika onak eta kutsaduraren kontra babesteko betekizun legalak eta ISO 14.001 arauagaz bateragarri diren ingurumenerako hobekuntzak ezarriz (Ingurumen kudeaketa sistemen nazioarteko araua).

2016.an, Bermeoko Portua espazio ekonomiko anitza, orekatua eta estrategikoki garrantzitsua da eta zorionez, arrantza jardueren izaera eta zaporea mantentzen dau oraindik. Ekonomia lokalaren osagarri den trukaketa plataforma handia dogu. Herriko ekonomia bere zuzeneko jardueragaz eta enpresa sare zein zerbitzu osagarriekaz aberastuten dau portuak, hala nola, kontsignazio eta pleitamenduak, arrain manipulazioa eta salmenta, itsasontzien konpontze eta mantenimendua, ontzi-hornikuntza, bukeen horniketa, aisialdiko zerbitzu eta nautikak eta turismo aktiboa: ibilbideak eta urpekaritza... Bermeori gainerako fakturazio bolumena, lanpostuen sorkuntza, eta azken finean, oparotasuna eskaintzen deutseen aktibitate multzoa.

Azti, garapen jasangarrirantz eta osasunerantz zientziaren bitartez

AZTI zentro teknologikoak lanean dihardu berarekin harremanetan dauden sektoreetan balio jasagarria eta aukerak sortzeko helburuarekin. Itsasoen eta ozeanoen portaera eta babesa, arrantza-erloto ekoizpenean eta merkaturatzean prozesu eraginkorrak eta jasagarriak bilatzea, elikagaien sektorean produktu berriak sortzen laguntzea eta kontsumitzaileen portaerak aztertzea dira, besteak beste, haren espezializazio-alorrak, non beraren ikertzaileen ezagutza zientifikoa gaur egunerako eta etorkizunerako garapen jasagarri eta osasungarri bilakatzen den.



Diru- eta ingurumen-itzulkinak sortzen dituzten proiektuak zuzentzen ditu Sukarrietan duen egoitza zentraletik eta Derioko parke teknologikoko eta Paisaiako zentroetatik; esaterako, arrantzagatzen kudeaketa. Alor horretan, nazioarteko zenbait batzorde zientifikotan parte hartzen du AZTIk, arrantza-baliabidea —berdela, zapoa, legatza, bakailaoa, tunidoak eta antxoak— kudeatzeko informazioa emanaz. Antxoaren arrantzaren mende dago EAEko baxurako sektorearen urteko diru-sarreraren zati handi bat, eta AZTIko ikertzaileek duela hiru hamarkadatik antxoari buruz egiten duten kudeaketa jarraituari esker, atzean utzi ahal izan dugu antxoaren arrantzaren garai ilun hura, 2006tik 2010era bitartekoa, non Europako Batzordeak arrantza-jarduera etetea agindu baitzuen antxoaren urritasuna ikusita. Gaur egun, osasun-egoera una du arrantza-jarduera horrek, eta badirudi sektorearen jarduera bermatuta dagoela.

Arrantza-sektorearen eraginkortasuna hobetzeko, AZTIko ikertzaileek **ikerketa soluzio bihurtzen dute**, eta soluzio horiei esker, arrantza-ontziek erregaiaren % 10etik % 25era bitartean aurrezten dute urtean, adibidez, eta horrek sektorea lehiakorragoa egiten du, eta ingurumena zaintzen laguntzen du.

Berrikuntza gizartera itzultzea

Berrikuntza-jarduera eta teknologia eta ezagutza transferitzeko lan garrantzitsua egiten du, eragin sozial eta ekonomiko handi batekin. Hala, AZTIk I+Gn inbertitzen duen euro bakoitzeko, 7 euro mobilizatzen ditu arrantza-industrian eta 15 euro, elikagai-industrian. **Berrikuntza industriara itzultzen den** adibide gisa aipa daiteke Blau Wild Snacks enpresaren produktuak eta prozesuak sortzeko eta garatzeko egin den lankidetzeta. Zizka-mizken merkatuan berritzailea da Balu Wild Snacks, fruta- eta landare-produktu % 100 natural deshidratatuekin.

Proiektu eraldatzailearen beste adibide bat, orainoa zientzia osasun bihurtzen denekoa, bioteknologiaren bidez dieta pertsonalizatuak egiteko ekimena da. AZTIko ikertzaileak kontsumitzaileen behar nutrizionalei eta lehentasunei erantzuten saiatzen dira elikagai pertsonalizatuaren bidez. Azpimarratzekoa da alor horretan Lipinutragen (Italia) eta IMS (Gipuzkoa) enprekin egin duten aliantza, zuntzaren lipidomika aplikatzeko; horri esker, elikatzeko ohiturei, bizi-estiloari, familiako aurrekariari eta abarrei buruz informazio-kantitate handia lor daiteke elikagaiak diseinatzeko eta pertsonalizatzeko.



EUSKADIKO ZURA ZURE BIZITZAN LA MADERA DE EUSKADI ESTÁ EN TU VIDA



Gure basoetan egiten dugun kudeaketa iraunkor bati esker hemengo zurarekin egindako produktuak erabil ditzakegu. Produktu paregabeak, berriztagarriak eta kalitatezkoak, ingurumena errespetatzen dutenak.

Gracias a una gestión sostenible de nuestros bosques podemos disfrutar de productos elaborados con madera local. Productos únicos, renovables y de calidad que respetan el medio ambiente.



KOLABORATZAILEAK / COLABORADORES



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Ekonomia eta Lehiakortasun Saila
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD

www.gure-zura.org





Turismoa bidea urratuz doa Urdaibain

Urdaibaiko turisten etorreraren igoerak 2016an goranzko bira garrantzitsua markatu dau. Azken denboraldiaren bisitarien datuek marka guztiak hautsi dabez. Eskualdeko turismo bulegoek inoiz baino gehiago egin dabe lan geure lurraldera hurbildu diren milaka turistak hartzeko. Errealitate honek goranzko joera erakusten dau. Honek, Busturialdean turismoaren garapena berresten dau, sektore ekonomiko gisa.

Bermeok eta Gernika-Lumok, eskualdeko herri nagusiek, euren datu turistiko hobeena gaintitu dabez 2016an. Bermeon 22.957 bisitari; Gernika-Lumon 27.898. Batzar Etxeak turistak erakartzeko ahalemena erakutsi dau, garagarrilean eta abuztuan 44.643 pertsonak bisitatu dabe. Eta Gaztelugatxeko Donieneko informazio puntuan 28.136 kontsulta jaso dira. Horrela, bi hauek lehen mailako baliabide turistiko bezala finkatuta daude.

Datu hauek Urdaibaik jomuga turistiko gisa daukan erakargarritasuna baieztatzen dabe. Dauden zerbitzu eta baliabide turistikoak dinamizatzeko estrategia bat garatzeko edota bisitagarriak diren baliabideak balioan jarri eta honen difusioa sustatzearen garrantzia agerian jartzen dabe be.

"Igazko datuak gaintitzen dabez Gernikako zifrek, honek jomuga turistiko gisa sendotzen dau. Bisitarien %91a Euskal Herritik kanpokoak dira: Katalanak, madrildarrak, valentziarrak, andaluziarrak, frantsesak, alemaniarrek eta

italianoak. Ipar Ameriketatik etorritako 502 turistak be egon direla nabarmendu behar da", Gernika-Lumon.

"Geure helburuak turismo jasagarria eta urte guztian zehar turistak izateari laguntzea dira. Erakunde, enpresa eta herritarren arteko kolaborazioa ezinbestekoa da. Funtsezkoa da be bai eskaintza turistikoa hobetzea eta gehitzea, negozio barriak sortuz, zerbitzuak hobetuz, ondareari balioa emon edota seinaleztapena hobetuz", Bermeo.

"Mundakan bisitarien hazkuntza egon da. Ostalariek eta merkatariek horrela egiaztatzen dabe. Geure produkturik eta baliabiderik onena surfa da, baina aparteko inguru ederrean kokatutako herri txikia eta polita izatea be nabarmetzen dabe bisitariak", Mundaka.

"Urdaibaiko barnealdeak be badauko gero eta erakarmen handiagoa. Gero eta indar gehiago hartzen doan mendi-bizikletan edota mendi-bizikletan ibiltzeko turismo aktiboari ematen deusagu erantzuna guk. Gainera, erromesek gehiago hartzen dauen bidean gagoz, gero eta zerbitzu gehiago eskatzen dauen turismoa", Mendata.



Barrikuntzaren aldeko apustua egin beharra dago, enpresetako barrikuntzan nahiz aukera barriak sortzeko ekinzailertzan.

UNAI REMENTERIA
BIZKAIKO AHALDUN
NAGUSIA

LURRALDEA BERA HURRENGO 15 URTEETARAKO PRESTETEA DA HELBURUA

Hamabost hilebete daroazuz Ahaldu Nagusi moduan. Orain arteko kudeaketak kontuan hartuta, zein izan da harroen egoteko modukoa?

Harro-harro nago egin barri dogun urteko Neurbi inkestan lortutako datu batez: Bizkaiko biztanleen %84,4k zoriontsuak dirala adierazo dabe. Aldundi honek lurraldearen alde egiten dauenak zoriontasun horretan zeezelango zerikusirik euki dauela pentsau gura dot.

Zein izan da gatxena?

Onartu egin behar dot ezinean nagoala ez dogulako lortu Eaton enpresako zuzendaritzak Derioko lantegiko EREari buruz eukan eretxia aldatzea. Bete-beteen busti gara, zailtasunak daukiezan enpresei laguntzeko, ACBri, barbarako, baina kudeaketa horreek ez dira errazak izan. Beharginen ordezkariak lako haserreak, aukerak eta itxaropenak bizi izan doguz. Bide hori alkarregaz egin dogu, eta gogorra izan da benetan. Azkenean, Bizkaiko Altzairutegi Trinkoa barrero edegitea erabagi dabe, baina guretzat ez da nahikoa, altzairutegiak ekoizpenaren eta lanpostuen arloan daukan ahalmena berreskuratu gura dogulako bete-beteen.

BFAko Bizkaia Goazen 2030 Estrategian, lau lehenetasun zehaztu dira: jarduera ekonomiko handiagoa eta kalidadeko lanpostu gehiago; gizarte eta lurralde arloko kohesino

Busturialdea da Bizkaian Biosferearen Erreserba daukan eskualde bakarra. Aukera aparta da benetan.

handiagoa; munduagaz lotura handiagoa daukan Bizkaia; eta administrazio moderno, hur eta arduratsuagoa.

Busturialdearen onerako izango da estrategia hori? "Busturialdea Goazen" estrategiarik egongo ete da?

Bizkaia Goazen 2030 estrategiak 120 ekintza zehatz eskeintzen dauz, baita data zehatzak, inbersino zehatzak eta hartzaile zehatzak be. Lurraldea bera hurrengo 15 urteetarako prestetea da helburua. Izan be, jakin badakigu udalerrri edo eskualde batentzat ona dana Bizkairako be badana ona; eta, alderantziz be bai, Bizkairako ona dana bertako udalerrri zein eskualdeentzat be badana ona. Hori dala eta, estrategia horretako ekintza batzuek eragin zuzena daukie Busturialdean; esate baterako, Autzaganeko tunela 2018ko martirako egongo da amaituta. Bestetik, lehenengo eta behin, Durangon eta, gero, Gernika-Lumon, arreta integralerako bulegoak edegiko doguz, aldundia eta biztanleak hurrago egoteko eta administrazinoko izapide batzuk erosoago egiteko. Gainera, aurreikuspenen arabera, Busturialdeko suhiltzaileen parkea be 2018rako egongo da. Dana dala, beste ekintza asko be badagoz, eta bertako hartzaileak Bizkaiko eskualde, udalerrri eta biztanle guztiak izango dira; esate baterako, enplegurako planak, ETE-etako barrikuntza edo nazinoarteko ezarpena bultzatzeko programak, autopistak erabilteko gehieneko tarifea, Europako aukeren bulegoa, egoitzen kontzertazinarako eredu barria, kontratazinarako klausula sozial barriak...

Zer argazki egiten dozu gaur eguneko Busturialdeari buruz?

Sasoi batean, enpresa industrial asko eta asko egozan Busturialdean, baina aurrera begiratu behar dogu. Gaur egun zer daukagun aztertu eta eskualde honek jarduera ekonomikoa eta, horren ondorioz, kalidadeko lanpostuak sortzen zelan segidu ahal dauen asmau behar dogu.

Barrikuntzaren aldeko apustua egin beharra dago, enpresetako barrikuntza nahiz aukera barriak sortzeko ekintzailletzan. Busturialdea da Bizkaian Biosferearen Erreserba daukan eskualde bakarra. Aukera aparta da benetan, bertan dagozan enpresek nabarmendu daikielako ingurumenari begira jasangarria dan ingurunean garatzen dabela euren jarduereta eta, horren ondorioz, beste leku batzuetan ez daukiezan kalidade eta jasangarritasun arloko parametroak bete behar dabezala. Era berean, eskualdea bera gero eta hobeto dago konektuta, lurraldeko lehiakortasuna areagotzeko moduko trenbideari eta errepide bidezko garraioari esker. Bestetik, Autzaganeko lanak 2018rako egongo dira amaituta. Horrezaz gainera, beste hobi batzuk be arakatu behar doguz turismoan. Turismo hori, ostera, ez da jentetsua izan behar, kalidadekoa baino. Bete-betean lan egin behar dogu, udan datorren jentetza neguan be etorri daiten.

Barrikuntza Fondoaren sorrerea iragarri barri dozu, eta ETE-etarako proiektuak finantzatzea dauka helburu. Zelako eragina euki daike eskualdeko garapena bultzatzeko orduan? Eta Busturialdeko gazteentzako lan-urtenbideak sortzeko orduan?

Barrikuntza Fondoaren bidez, lurraldeari begira ona dan proiektu barrizaille bakar bat be ez da garatu barik geratuko finantziatorik ez egotearren. Holan, eskualde guztietako biztanleek behar beste aukera eukiko dabez, proiektu barrizaillea euki arren aurrera eroateko baliabiderik ez daukienean. Datorren urtea lurraldeko gazteen urtea izango danez, are laguntza eta aukera gehiago eskeiniko deutseguz. Zelan? Honelako ekimenen bidez: gazteentzako lanpostuak sortzeko moduko proiektuak, ekintzailletzarako programa gehiago, aldundian bertan egiteko praktika eta beka gehiago, lurraldeko sektore estrategikoetarako bekak, nazinoarteko prestakuntza-zentroetarako aukera gehiago edo Bizkaia Gazte Txartelaren sorrerea, garraioan, dendetan, aisialdian, kulturatan... deskontuak lortzeko.

*D*atorren urtea lurraldeko gazteen urtea izango denez, are laguntza eta aukera gehiago eskeiniko deuseguz

Fondo horrek Gernika-Lumoko bihar-etzikoko Elkartegia bultzatuko ete dau?

Funtsezko sustapena izan daiteke, fondoak giltza izan daitekealako Elkartegi honetan egon daitekezan proiektu barrizaille on horreek abian jarteko, aurrera zelan egin ez daukienean. Horri esker, hain zuzen be, 600.000 eurorainoko finantziazioa lortu ahal izango da %2 inguruko interes-tasapean.

BFA Busturialdeko ondare arkeologiko eta kulturalaberatsabaliostendabil. Turismoari begira erakargarria denez, baleiteke eskualdeko sustatzaile ekonomikoetakoa izatea?

Horixe berori adierazo gura dot urte osorako kalidadeko turismoari buruz berba egiten dodanean. Ezelako zalantza barik, Busturialdeko ondare arkeologiko eta kulturala beste elementu baliotsu bat denez, oso lagungarria izan daiteke bisitariak gure eskualdera erakarteko orduan. Geure ondarea nabarmentzea ez eze, elementu guztiak euren artean lotzea be badaukagu helburu. Hau da, turistek Batzarretxea eta Gernikako Arbola bisitatu behar dabez, baina, aldi berean, Forua, Arrola eta Sollubeko ondare aberatsa edo Gernika, Bermeo eta beste udalerrri batzuetako museoak be bai. Era berean, Lea Artibaiko Atxurra eta Armintza kobazuloetan topau barri diran pinturak eta grabauak be nabarmendu behar doguz. Altxor arkeologiko horreek eta Santimamiñeko kobazuloak aukera parebakoa eskeintzen deuskue, munduak gure ondare aberatsa ezagutu daian.

Geure ondarea nabarmentzea ez eze, elementu guztiak euren artean lotzea be badaukagu helburu.

Gaztelugatxeko San Joan gure altxor turistiko nagusietakoa da. Aldundiak iragarri dauenez, ingurua balioesteko Plan Integrala egingo da. Badaukazu zertan datzan azaltzerik?

Hobekuntza-lanak egiteko plana baino askoz gehiago izango da. Izan be, kudeaketa, itzulketa ekonomikoak, ingurumenaren babesa, ahalmen turistikoa, inguruko ahalmena... kontuan hartuko dauzan plan integrala izango da. Gaur egun, ezin dogu gehiago zehaztu. Dana dala, proposamen jasangarria baizen serioa izango da, eta inguruko udalerrri zein eragileakaz partekatuko da etorkizuna. Aurreikuspenen arabera, datorren udabarrian aurkeztuko dogu edo udako lehenengo asteetan.

Aurton, Guggenheim Museoaren 20. urteurrena bete da. Oraindino mahai gainean segiduten dau Guggenheim Urdaibaiko proiektuak?

Guggenheim Urdaibaiko proiektua Bilboko Guggenheim Museoaren beraren Plan Estrategikoan azaltzen denez, mahai gainean dago oraindino. Edozelan be, nire ustetan, lehenengo eta behin, museoaren ondorioei buruzko ezelako konplexu bako azterketa partekatua egin behar dogu.

Zertan datzan eta zer helburu bete behar diran aztertu beharko dogu. Horrezaz gainera, aukerak, kokapen zehatza, erespide kulturalak eta jarduera ekonomikoa be euki behar doguz berbabide. Hori guztiori mahai gainean dagoanean, erabagi egin beharko geunke proiektuak aurrera egiten dauen edo helburuak edo aurreikuspenak ez beteteagaitik onartzen ez dan.

N

eure betiko bizilekuan
bizitzen segidutea
funtsezkoa da

Bizkaiko Ahaldun Nagusiarentzat, gatxa da familia-uztarketa lortzea? Zelan bizi dau zure familiak egoera barria?

Orain dala 15 hilebete kargua hartzean emon neban berbaldian esan nebanez, nire lehentasunetakoan zan Bizkaian bertan familia-uztarketa bultzatzea eta horren adibidea emon gura nebala neure familiari merezidutako denporea eskeinuta. Egunero-egunero, hori lortzen ahalegintzen nazan arren, onartu egin behar dot batzuetan ezinezkoa dala eta ez dodala gura besteko uztarketarik lortzen. Halanda be, benetan merezidu dau ahalegintzea.



Argazkiak: Bizkaiko Foru Aldundia

Mundakan, jaioterrian, bizitzen segiduten dozula kontuan hartuta, zer ekarpen daukaz Ahaldun Nagusi moduan daukazuzan erantzukizunetan? Eta Unai Rementeria moduan?

Berbaldi haretan esan nebanez, eta, oraindino be, eretxi berekoa naz, Ahaldun Nagusia izan arren, nintzana izaten segidu gura neban, persona arrunta, alegia. Neure betiko bizilekuan bizitzen segidutea funtsezkoa da horretarako, eta inoiz ez dot beste asmorik euki. Ez dot uste Mundakan Ahaldun Nagusia nazanik, betiko Unai, beste bat baino. Hori oso garrantzitsua da niretzat.

Geure historia eskuragarri Santimamiñen 100 urtetan zehar, **etorkizun iraunkorra aurretik**

Santimamiñeko koba, milaka urtekoa, edertasun geologiko ederrekoa da. Aparteko labar-pinturak gordetzen dauz, arte paleolitikoaren adierazle. Euskal Herriko aztarnategi arkeologiko eredugarria da hau. Honen aurkikuntzatik 100 urte igaro dira, mende oso bat, ikerkuntza, ezustekoak, ilusioa, lana eta batez be erronka nagusi bategaz, bere kontserbazioa. Koba ahalik eta egoera onean mantentzeko, balioan jartzeari eta hedapen sozialari uko egin barik, 2008tik Gizartearen Ondarea den baliabide honen kudeaketa aitzindari eta eraginkorra burutu da.

Santimamiñeko aztarna arkeologikoak gizakiaren etapa ezberdinen bizimoduak arakatzeko lagungarriak dira. Euskal historiaurrearen zati bat argitzeko 100 urteko ikerkuntza burutu da bertan.

Hedapen jasangarria

Gaur egungo kudeaketa eta gizartearen zabaltzeko proiektua, orain zortzi urte martxan jarritakoa, guztiz arrakastatsua izan da, bai publikoaren aldetik bai ondarea kontserbatzeko teknologia barrien erabilpenarako eredu gisa. Koba barruan gaur ikerlariak eta bere kontrola eta mantenimendurako tekniko arduradunak bakarrik sar daiteke.

Santimamiñeren gaineko ezagupenaren difusioa mundu guztiaren eskura dagoen aparteko bizipena da. Bizkaiko Foru Aldundiak koben narriadura gelditzeko erronkari aurre egiteko formula



barrizaillea erabili dau. Haitzuloaren barruan bisiten eraginaren gaineko txosten teknikoek horrela frogatu dabe. Publikoari zarratzeko gomendioaren aurrean, 2006an diziplina anitzeko lan taldea sortu zan. Kobaren hedapenari uko egin barik, garbiketa sakonaren prozesuari ekin eutson, kontserbazio plana eta kudeaketa plan barrizaillea martxan jarri.

Horrela, zatika egiten dan bisita gidatuak zulotutako koba osoa lehen pertsonan ezagutzeko aukera emoten dau.

Bisita

Ikerkuntza lanari buruzko lehen azalpenak kobaren atarian emoten dira. Publikoa atarte honetan bakarrik sartu ahal da. San Mameseko ermitan, interpretazio-zentro bihurtua, jarraitzen dau bisitak. Bertan, errealismo handiko proiektzioa emoten da, induskatutako kobazuloaren barneko 365metroak zeharkatzeko aukera eskeiniz kamara subjektibo baten bitartez. Gidariak ibilbidearen gorabeherak azaltzen dautz eta bisitariak benetan kobaren barruan sentitu ahal diren emozioak bizi ahal dautz. Ikusentzuneke euskarria eta azalpen zuzenaren konbinazioak, denbora errealean, eskarmentu handiko aztarnategi arkeologiko ospetsu hau errealitate birtualaren sasoian sartzen dau. Kalidadezko bisita bermatzen dau honek eta legatu arkeologikoa etorkizuneko belaunaldientzako eta zientziarako gordetzen dau.

100 urte ez dira ezer

Milaka urtez Santimamiñeko koba (Kortezubi) ezkutuan egon zan, Ereñozar mendiaren magaletan babestuta. 1916an mutiko batzuen jakin-mina zela medio, munduari aurrera eginarazteko berezko sentimenduari jarraituz, Euskal Herriko aurkikuntza arkeologikorik garrantzitsuenetako hau aurkitu zan. Ikerkuntza nagusia 1917a eta 1918a bitartean burutu zan, Telesforo de Aranzadi, Jose Miguel de Barandiaran eta Enrique Egurenen eskutik. Mende oso batez arkeologian adituek, geruzaz-geruza, Goi-Paleolitikoaren santutegi honen sekretuak argitzeko lan egin dabe. Bertan geure jatorria eta historiaz mintzatzen da. 2020rako orain 15.000 mila urteetako geruzetara heltzea espero dabe adituek.

Gaixo kronikoa

Aurkitu zanetik, koba bisitatzeko interes handiak mugituta, bederatziz hamarkadatan, milioi bat pertsona barneratu dira kobazuloaren galerietan zehar, bere pinturak eta grabatuak ikusteko. Bertan, geure legadu artistiko zaharrena dago, geure arbasoek, ehiztariak eta uzta-biltzaileak, zehaztasun osoz irudikatutakoa. Hainbeste jende etengabe sartzeak eta argi elektrikoa ezartzeak (1969) kobak narriadura handia pairatzea ekarri eban.

Gizartearen Ondarea

2008an, UNESCOren Gizadiaren Ondare Batzordeak Gizartearen Ondarea izendatu eban Santimamiñeko koba. Bi urteko prozesuaren amaiera izan zen hau, Eusko Jurlaritzak honen kandidatura sustatu eban, Kantabriako eta Asturiasko Gobernuekin batera bultzatu eben hautagaitza. Paleolitoko arteak Kantauriko kostan daukozen gunere erakusgarrienak aurkeztu ziren hautagaitzan. Deklarazio honek garrantzi handikoa izan zen Euskadi, Urdaibai eta Santimamiñe nazioarteko zirkuitu kultural eta turistikoetan sartuz.

Santimamiñen, duela 14.000 urte baino lehenagoko gizakien kokalekuen aztarnak eta Goi-Paleolitoko Madelein aldiko labar-pinturak kontserbatzen dira. Koba 365 metroetakoa da, edertasun handikoa, kaltzio-formazio anitzak daukoz barruan, figura bereziak sortuz. Baina berezienak bere pintura ospetsuak dira: 32 bisonte, 7 ahuntzak, 6 zaldi, artza bat, oreina bat, eta beste irudi batzuen aztarna osatugabeak. Guztiak kolorebatekoak dira, baltzak, ikatzagaz egindakoak.



Argazkia: 1953. Adela Garteiz, Markel Zallo eta denderak

ADELA GARTEIZ, ASPALDIKO DENDA

'Adela Garteiz'ren historiak 1850.urteko Gernikara eramaten gaitu, Agapito Garteizen sasoiara. Beragaz hasi zan merkatarien familia leinu hau eta laugarren belaunaldira heldu da. Ogibidea, espirtu ekintzailea, lan asko, errespetuzko harrera pertsonalizatua eta kalidadezko produktuak dira errezeta honen osagaiak. Sasoi barrietara ondo egokitu da, Gernika-Lumon eta eskualde osoan be bere tartea aurkituz.

Garteiz familiaren merkatal ibilera telak saltzen hasi zen. 1850. urte inguruan Agapito Garteizek hasi eban familia leinua, antzinako Prantziskalen denda bat jarriz. Baina honen alabak, Adela Garteizek emon eutson izena eta izana negoziolari. Bera negoziaren buru, gaur egun Elai Alai Aretoa dagoen lekura eraman eban denda. Bertan bi solairu egon ziren. 1937ko Gernikako bonbardaketak suntsitu eban denda baina "ez zan galdu merkatal espirtua. Amuma oso ausarta zan, odol berokoa. Kapitaina zeukan etxean, bere gizona (geure aitita), baina benetazko kapitaina bera zan. Barriro be zabaldu eban denda, aldibaterako, gaur egungo Juan Calzada kalean. Hortik urte batzutara behinbetiko ezarri ziren "Arkupeetan", azaltzen dau Adelaren lobak, Juan Cruz Zallok.

Sasoi hartan ez zegoen *pret-a-porter*. Hasieran telak saltzeko saltokia zan. Telak metrotan saltzen ziren eta jostunek erropak neurrira egiten eban. Telen saltokia izatetik jantzigintzara aldaketa beranduago emon zan. Aldaketa motela izan zan, negurako erropen eskaerak eraginda. Hauxe hirugarren belaunaldiak burutu eban, Markel Zallok (Adelaren semea) eta bere emazteak Margarita Bilbaok. Azken honek, sasoi harek bizirik gordetzen dauz memorian "Ondo gogoratzen dodaz gabardinak, jendea pozarren zetorren erosten. Oraindik kutxatan zeuden eta ezebe barik geratu giñen", gogoratzen dau Margaritak.



 **Visit Urdaibai**
© bai Nueva Europa

**IBILBIDE
TURISTIKOAK**
Kulturalak eta ekologikoak top

KARTARA, **UMEEKIN**
URTE GUZTIAN ZEHAR

Erreserbak: www.visiturdaibai.com



**EUSKAL
SOUVENIRS**

Andra Mari kalea s/n.
48300 **GERNIKA**

946 251 930 - 685 758 102



euskal.souvenirs@gmail.com www.euskalsouvenirs.com



Argazkia: 2016. Adela eta Juan Cruz Zallo

Ondo egitea

"Adeitasuna, tradizioa, esfortzua, bezeroari harrera,... ez da saldu eta kitto. Bezeroaren fideltasuna bilatu behar da. Egun baten ez badeutsazu ezer saltzen bardin deutso, barriri bueltatzea da funtsezkoa. Bezeroak dauko lehentasuna, bera da lehena eta bigarrena be bai", baieztatzen dau Adela Zallok. Honek, bere nebagaz batera, Juan Cruz-egaz, 'Adela Garteiz'en laugarren belaunaldiko oinordetza hartu eban orain urte batzuk. Hauen amak, Margarita Bilbaok, jubilatuta jada, lan handiko sasoiak gogoratzen dauz. "Bermeoko bezeroek etxera etortzen ziren, txirrina jo eta guzti, denda zabaltzeko eskatuz, autobusa hartu ahal izateko. Eta merkatua zegoenean, astelehenetan ez zan zarratzen, egun guztian etengabe zabalik geneukan denda. Txandaka jan egiten gendun eta lau saltzaile zeuden", kontatzen dau Margaritak.

Gaur egun merkatua asko aldatu da. Eskaintza zabala da, merkatal guneetan denda asko batzen dira. Hauek prezioak erabiltzen dabez lehiatzeko eta aparkatzeko erreztasunak emoten dabez. "Legen gauza garestiagoak saltzen ziren, baina orain prezioa asko begirutzen da. Orain prezioko komertzioa dago eta honen aurrean guk kalidadea eskeintzen dogu. Bilbon frankiziak dagoz eta erropa merkea. Geurea bezalako denda multimarkak herrietan mantentzen dira, baina saltzeko modu barrietara egokitzen gara. Merkatarien laugarren belaunaldia izateak tradizioa

eta esperientzia emoten deusku, bizi garen momentuaz ohartarazteko eta aurrera egiteko. Garrantzitsua da jentea ez nekatzea, ez artegau. Jenteak bilatzen dauen askatasun hori emon behar jako, dendara sartu eta begitzeo askatasun hori. Hemen guztiak dira bezeroak, diru asko zein gutxi gastatzen dabenak edota bakarrik begiratu egiten dabenak...", adierazten dau Adela Zallok.

Gernikako merkataritza

Frankizia merkeen agerpenaren aurreran edota internetaren aurrean bizirik irautea zaila da. Baina Adela Garteiz dendaren azken belaunaldiaren arabera "Gernikan komertzio ona dago, baina aparkatzeko zailtasunak konpondu eta jarduera ekonomikoa sustatu behar da herrian. Horrela jenteak ez dau herritik kanpo irten beharko lan bila". Bezeroei dagokionez, ez dago trabarik, "pagetan dauenatarikoa da, arduratsua eta legezkoa". Beti emon dabe ordaintzeko erraztasunak eta ez dira inoiz damutu. "Amuma Adela egiten eban bezala, guk be erropak probatzeko etxera eramatea be itxi egiten dogu. Gauza hauek ondo hartzen dira eta salmentak erraztu egiten dabez. Inoiz ez doguz eukin zorrik".

Juan Cruz eta Adela neba-arrebek dendan jubilatzea nahi dabe. Oraindik jakiterik dago familiaren belaunaldi barriek Adela Garteizeko negozioagaz jarraituko dabeen.



ABENDUAREN 18AN
ARRATZUKO
ARDO
DASTAKETA
LOIOLAN



Arratzuko udala

Saltsa-Porru



*"Taloa, eskas
deuenien, gozo"*

Taloa 4 pertsonantzat

Osagaiak

350gr Arto-irina
250ml ur
gatza

Irina mahai gainean jarri, erdian zulo bat egin eta gatza bota. Ur beroa apurke-
apurke gehitu. Eskuz oratu masa konpaktua izan arte. Trapu busti bat jarri
gainetik eta 30 minutuz geldirik utzi. Masagaz bolatxoak egin eta zabaldu,
eskuagaz kolpe txikiak emonez opila egin arte. Plantxa beroan jarri alde bietatik
kizkortu arte.

TALOA, BASERRIKO ZAPORE BOROBILA

*"Talo beroak
gazta du jaki;
hori, edonork
daki"*

Arto-irina, ura eta gatza. Oinarrizko osagai hauek, ondo oratuta eta puntu-puntu txigortuta, taloaren sekretu xumeak dira. Taloa geure nekazal azoketan ukatuezinako protagonista da. Bere artisau zaporeak eta tradizioaren usain gozoak atzera eramaten gaitue, familia baserriaren inguruan bizi egiten eban garaietara, lurrari estu lotutako iragana.

Ameriketatik heldu zan artoa Euskadira XVII. mendean. Hasiera baten abereentzako pentsu gisa erabili zan, baina laster, taloa egiteko ezinbesteko osagarria bilakatuta, familiantzako oinarrizko elikagaia bihurtu zan. Ogi-opil mota bat da, laua eta borobila, txapan egosita. Hainbat mendeetan zehar euskal baserrietan ogi bezala erabili zan, beste elikagai batzuekatz batera jateko. Afaldu edo gozaltzeko esnean bustita jaten zela be gogoratzen dabe batzuk. Hala ta guzti be, XX. mendean, geure baserrietan gari ogiak bigarren planora eraman eban taloa, ia kontsumitzeari utzi arte. Geure nortasun ezaugarriak diren ohiturak berreskuratzeak eta balioan jartzeak, taloa barriro ekarri dabe geurera. Honek ospe handia lortu dau gaur egun, nekazal zein elikagaien ekitaldi danetan ezinbestekoa da taloa. Egun berezietan jaten da, azoka guztietan taloaren postuak aurkitzen dira. Hauetan ilara luzeak sortzen dira talo txorizoagaz edo txistorragaz dastatzeko. Gaztaia, solomoa edota txokolateagaz jaten da be askotan. Goi mailako gastronomiak gozotasun tradizionalen bere karta apartekoan sartu dau. Bilboko edo Donostiako Santo Tomas azoketan, Gasteizeko San Prudentzioetan edota geure Urriko Azken Astelehenaren azokan nagusi da.

Errezeta erraza baina sekretuagaz

Antxina, baserrietan azpilan prestatzen zen taloaren masa, gaur egun edozein mahaiak balio dau. Antxinako eran prestatzeko arto-irin moltsotxu bat egiten da, berriki birrinduta ahal bada. Erdian zulo bat egiten da, gatza gehitu eta ur beroa gehituz joaten da. Guztia apurke-apurke oratu behar da, masa ondo dago azpilan eta eskuetan inkatzen ez bada.

Talo on baten sekretua, guztia bero prestatu behar izatea da, masa, zabaltzea, txapa eta zerbitzatu. Masa ez da hotzitu behar, eskuz zabaldu behar da hau opil forma emonez, finak eta borobilak. Ondoren txapan birrizkildu behar da. Antxinan, baserrietan jan aurretik sutondoan ezartzen ziren.

BA AL DAKIZU?

- Leitzan Taloaren Eguna ospatzen da eta Talo Lehiaketa egiten da. Aurton 12. edizioa bete da.
- Arto-irinagaz borona ogia eta morokila egiten da be bai, esneagaz jateko.
- Taloa zeliakoentzako ona da arto-irina glutenik gabekoa da eta.

Berdean



“LIZTOR ASIARRAK”

GEURE BIODIBERTSITATEA MEHATXATU EGITEN DAU

Jatorriz Asiako hego-ekialdekoa, *vespa velutina*-k biziraupen eta ugalketa gaitasun handia daukola erakutsi dau. Gero eta presentzia handiagoa dauko Busturialdean. Ez da giza osasuna arriskuan jar dezakeen espeziea. Biodibertsitatearentzat, aldiz, mehatxua da, gehienbat ezti-erleei erasotzen deutsalako. Jarduketa-protokolo ofiziala abian dago. 2016ko urtarrilatik irailerarte, Busturialdean 237 alditan aktibatatu da protokolo hau.

2004an agertu zan lehen aldiz European eta sarbidea argi ez badago be, baleiteke ustekabeen sartu izatea, Frantziatik, Txinatik zetorren merkantalontzi baten. *Vespa velutina* jatorriz Asiako hego-ekialdekoa da baina ez dau euki arazorik European zehar hedatzeko. 2010ean Irunen agertu zan eta 2011an Nafarroan. Bere hedapena modu naturalean emoten da ibarren bitartez.

Vespa velutina-k, liztor asiarra bezala ezagunagoa, ez dau pertsonentzako arriskurik suposatzen. Bere zitzadaren ondorioak eta hemengo liztorrenak antzekoak dira. Baina biodibertsitatearentzat mehatxua suposatzen dau, erleei erasotzen deutsalako. Egoera honen aurrean, Bizkaiko

Foru Aldundiak jarduketa-protokolo bat abiarazi dau *Vespa velutina* liztor asiarrari aurre egiteko, lurraldeko udalezak lankidetzan.

UDALEN EGINKIZUNA:

- Liztor habiaren bat ikusi daben herritarren deiak jaso eta datuak erregistratu aplikazio informatiko batera irauliz.
- Habia aktibo dagoela egiaztatu eta spray bategaz markatu habia.
- Aplikazio informatikoan bildutako datu guztiak grabatu.

ferrovial
servicios

SIEMPRE AL SERVICIO DEL CIUDADANO
CUIDANDO EL MEDIO AMBIENTE

Bekoibarra, nº 31 / 48300 Gernika-Lumo / Tel. 94 625 47 27

L&G
LOGÍSTICA

TRANSPORTE,
ALMACENAJE,
DISTRIBUCIÓN...

Txaporta industrialdea, 2-1
48300 Gernika - Lumo
(Bizkaia)

Tel. 94 625 03 85
Tel. 94 625 75 40
e-mail: lgk@lgk.es



LIZTOR ASIARRAREN ziklo biologikoa

Zezeil-martxoetan, **erregina fundatzaileak** hibernazio lekuetatik (lurra, enborretako zuloak etab.) irteten dira.

1

2

Apiril-maiatzetan, erregina fundatzaile bakoitza habia bat eraikitzen hasten da, eta lehenengo errunaldia egiten dau.



3

Liztor **langileak** jaiotzen direnean, habia eraikitzen jarraitzen dabe eta kolonia osoa elikatzen dabe hazi dadin.

4

Irailean jaiotzen dira **arrak** eta **erregina** barriak.

5

Arrek erregina barriak ernaltzen dabez, erregina horiek fundatzaile bihurtzen dira eta udazkenaren hasieran habiatik alde egiten dabe. Negua heltzen denean hibernatzeko babeslekua bilatzen dabe.

6

Neguan, habia sortu dauen ama erregina eta liztor langileak hil egiten dira. Bertan behera utzitako habia ez da berriro erabiliko hurrengo urtean.



Behin pausu hauek emon ondoren, Foru Aldundiak habia kentzeko baimendutako pertsonala bidaliko dau. Basalan, Sozietate Publikoaren pertsonalak kentzen dauz habiak. Kasu berezietan suhiltzaileen esku uzten dira. *"Aurton, protokolo barria martxan jarri danetik, irailaren 30ararte, 237 jarduera erregistratu dira.*

Hoietatik, 217 Basalanek burutu dauz eta 20 suhiltzaileek. Igaz, Busturialdean 198 aktuazio emon ziren. Momentu hartan, ez zegoen gaur egungo protokoloa martxan eta suhiltzaileek burutu ebeen aktuazio guztiak", nabarmendu dabe Bizkaiko Foru Aldunditik.

Nola bereiztu?

Erraz bereizten da, izan be, European itxura hain iluna daukon liztortzar bakarra da: gorputza baltza eta marroi iluna dauko, ori edo laranja koloreko oso irudi gutxigaz; helduak gaztain-kolorekoak dira eta urrunetik ikusita, habiaren gaineko orban ilunak emoten dabe. Tamainuari dagokionez, bertoko espeziea, *vespa crabro*-a baino pixkatxo bat txikiagoa da.

Habiak handiak dira, biribil edo obalau formakoak. Gehienetan 40 zentimetroko diametroa gainditzen dabe. Normalean adaburutan eraikitzen dabez, haritz, makal edota arkazitan, eta gutxiagotan, zuhaitzxoetan. Halan da be, gero eta gehiago ikusten dira hiri inguruetan. Horrela, leku harrigarrietan be agertzen hasi dira: galdaratan, tximinietan edota fatxaden zuloetan.

Elikadura-segurtasuna eta ingurune-segurtasuna

Kontrol analitikoak

Autokontrol planak: arrisku sanitarioen prebentzioa

APPCC eta PGH - Igerilekuak, giza kontsumorako urak eta legionelosisia

Diagnostiko integralak

Barne Airearen Kalitatea (CAI), klimatizazioa, iraungitzeak, bizitza baliagarria, bio-diagnosiak

Aholkularitza

Formakuntza



Biotalde

KALITATE ETA ZERBITZUAREN
KONPROMISOA



Beti-Jai

URDAIBAI KOPA, GEURE PAISAIA ZIRKUITURIK ONENA

Urdaibai zirkuitu natural parebakoa da. Honek kirola eta turismoa, zaletasuna eta lehiaketa, dibersinoa eta ariketa, ta ondarea eta aisialdia batzeko aukera eskeintzen dau. Kirol zaletasunaren eraginez, ondo pasatzeko gogoaz animatuta eta geure inguru naturala ezagutzeko asmoz, gero eta zaletu gehiago animatzen da Urdaibaitik "martxan" ibiltzeko. Herri ekimena, mendi-lasterketen "boom" a eta geure inguruaren edertasunak *Urdaibai Koparen* sorkuntza eragin ebeen. "**Martxen liga**" izendatu ahal dana.

Geure herriek ezagutzera emoteko modu osasungarria bilatu dabe, turismo naturala eta inguru errespetatzen dauen turismoa sustatuz. Bere balio "naturalagatik" eta gordetzen dabezen altxor kulturalengatik pribilegiatua den eskualdearen ondareaz gozatzeko modu ezberdina dira mendi martxak. Kirol topaketa hauek Urdaibaiko herriak dinamizatzeo aukera onak dira, sozial eta ekonomikoki. Zaletuak erakartzeko lokarri ezinhobea.

Ildo hau jarraituz dabil *Urdaibai Kopa*, mendi ibilaldien zaletuentzako kirol froga. Honek kirolarien forma fisikoa neurtu egiten dau, inguru naturalak eta kulturalak liluratu egin eta helmugara erakarriz. Lehiaketaren diziplina mendi lasterketa da eta aire zabalean markatutako ibilbide

eta pistetan bizkorrena izatean datza. *Urdaibai Kopa* Busturialdeko mendi martxa nagusiekaz batera burutzen da. 2016ko edizioaren barneko frogak hauexek izan dira: Ibarruri, Muxika (martxo), Ereño (apirila), Gernika-Lumo (maiatza), Gautegez Arteaga eta Forua (iraila).

Ekimen mendizale honek aurton bere laugarren edizioa bete dau hasierako helburuak oso-osorik mantenduz: kirola eta bere balioak sustatu, batez be, mendi lasterketena; harrobia sortu belaunaldi barrien artean; emakumezkoen partaidetza piztu; gazteentzako aisialdi plana bilakatu; lasterketa eta martxen zirkuitu bat errotu; geure herrietako ondare naturala eta kulturala zabaldu; eta erreferentea izatea.



Busturialde,
EUSKARA eta
URDAIBAIREN alde



Lehen lau urte hauetan lortutakoagaz pozik agertu dira antolatzaileek, are gehiago *Urdaibai Kopa* "zerotik hasi zela" kontutan hartuz. *"Bere sorkuntza eta antolakuntzarako ordu asko sartu dauen bolondres taldea gara. Hasieran ez geneukan komunikatzeko inolako euskarririk. Orain web orria eta izena-emoteko programa espezifikoa daukagu. Babesleak be badauzkagu baina gehiago izatea be gustatuko litzaiguke"*, azpimarratzen dabe.

URDAIBAI KOPA, ESTILO APARTEKOA

Mendi-lasterketa kirol modalitateak azken urteotan gorakada izugarria izan dau ikuspuntu guztietatik ikusita: lasterketen kopurua gehitu da baita partaidetza be, emakumezkoen partaidetza be nabarmen igoz. *Urdaibai Kopak* bere harri-koskorra jarri dau. *"Urdaibai Kopa apartekoa da. Parebako inguru naturalan egiten da eta gainera lagun artean eta giro ezin hobean burutzen da. Danak ezagunak gara. Etxekoak zaindu egiten doguz baina kanpotik datorrenari be ondo hartzen dogu. Partaidetza urtetik urtera goraka joatea honen adierazlea da. Igaz, adibidez, 300 parte-hartzaile batu genduzen"*.

Urdaibai Kopa Arrolape Klubeko ekimena da eta zirkuituan parte hartzen dabeen herrietako martxen antolatzaileen kolaborazio zuzena dauka. *"Arrolape Klubetik sortu gendun Urdaibai Kopa, gero eta kirolari gehiago mendi martxetan parte hartzeari animatzeko. Herri gehienetan mendi martxak egiten zirela konturatu giñen eta zirkuitu bateratu bat sortzeko asmoz martxa hauen antolatzaileekaz kontaktatu gendun. Hasierako urtean, 2012an, Gernika-Lumo, Ereño, Forua, Arratzu eta Muxikako Ariatzan ospatu zen. Azken bi hauek bertan behera geratu ondoren Muxikako Ibarruri eta Gautegiz Arteaga gehitu genduzan. Urdaibai Kopako zirkuituan herri barriak gehitzea da asmoa"*, azaltzen dau Aitor Uriartek, frogaren antolakuntza taldeko kidea.

Urdaibai Kopa puntuazio sistema berezian oinarritzen da, froga bakoitzean klasifikatzen dira korrikalariak. Hortik sortzen da *finisher-a* izatearena. Parte-hartzaileek *finisher-a* izateko zirkuituko lau frogatan lastertu eta puntuatu beharko dabe. Aurton, 40 korrikalari inguru *finisher* izan dira. Zirkuituraren amaieran, Foruko martxan, irabazleen sari-banaketagaz batera *finisher*-ek be jaso ebeen saria. *2016ko Urdaibai Koparen* irabazleek hauexek izan dira: Imanol Goñi (199 puntu), Joanes Goitisolo (198 puntu) eta Arkaitz Muños (190 puntu) gizonezkoetan, eta Leire Monasterio (192 puntos), Irantzu Onaindia (190 puntu) eta Agurtzane Argiarro (190 puntu), emakumezkoetan.

Oraindik badago bidea aurretik. Antolakuntza-taldea lanean dabil, ekin ta ekin, ilusioz edizio bakoitzean hobetzeko eta markatutako erronkak betetzeko asmoz.

URDAIBAI

©MAGAZINE

www.urdaibaimagazine.eus

Zure Aldizkaria



Zer ideia on!
Nueva Europa

ARGITARATZAILA: NUEVA EUROPA S.M
Carlos Gangoiti 15, behea / Gernika-Lumo (Bizkaia) / tel.: 94 625 06 06



PALEOLITOA

el paleolítico

2016.11.2 – 2017.1.29

Sala Rekalde Aretoa

Alameda Recalde 30, Bilbo

www.salarekalde.bizkaia.net